

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 27a

56 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen [\(3. or.\)](#).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko [\(11. or.\)](#).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzeko, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua [\(14. or.\)](#).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzeko. Tramitera ez onartua [\(15. or.\)](#).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena [\(15. or.\)](#).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Burlatan ikastetxe publiko berri bat eraiki dezan, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua [\(16. or.\)](#).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Ministerioaren Sektore anitzeko Plana, 2001-2005 eperakoa, gure Komunitatean aplikatu dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua [\(17. or.\)](#).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kalitateari buruzko Legeak jasotako hezkuntza-arloko neurriak aplikatu ez dituzan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua [\(18. or.\)](#).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sinatu dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako, Nafarroako Demokratik Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua [\(20. or.\)](#).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean izapidatzea (21. or.).
- Adierazpen instituzionala, maiatzaren 24an “Bakearen aldeko Emakumeen Nazioarteko Eguna” ospatzen dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (22. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, gas-hornidurarik ez daukaten herriei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (24. or.).
- Galdera, oztopo fisikoak kentzeko aurkezturiko proiektuei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (24. or.).
- Galdera, tokiko osasun-kontsultategiak eraiki eta birmoldatzeko aurkezturiko eskaerei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Martzilla-Peralta errepidea hobetzeko obretan bidegorri bat ere egiteari buruzkoa, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina (26. or.).
- Galdera, liburutegien sistema, museoak eta ondarea arautzeko lege bat egiteari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (26. or.).
- Galdera, Barañain eta Landabengo poligonoaren artean oinezkoentzako zubi bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Barañain-Etxabakoizko osasun-eskualde oinarrizkorako osasun etxe berri bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Barañainen 0-3 urte bitarteko haurrentzat ikastetxe bat garatzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak egina (28. or.).
- Galdera, farmaziak hitzartzeko baldintzei buruzko esparru-akordioari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (29. or.).
- Galdera, 2002ko uztailearen 1etik 2003ko maiatzaren 31ra bitartean aurreikusiriko baso-behatokien kokalekuei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (29. or.).
- Galdera, postua esleiturik izan gabe Osasun Etxeetan diharduten medikuei buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina (30. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat oposizio bitartez eta txanda irekian betetzeko. Izendapen proposamena (31. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartze-ko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko maiatzaren 13an hartutako erabakiaren bidez, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 125. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektua premiazko prozeduraz bideratzea.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazio Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko ekainaren 6ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartze-ko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak 259. artikuluan xedatzen duenez, Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta helburuak bete ditza-ten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaie, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak arautu-rik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera Nafarroako toki eraentzari berez dagokion gaia baita.

Horrez gain, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 260. eta 261. artikuluek xedatzen dute Toki Ogasunek Foru Komunitateko tributuetan parte hartuko dutela.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezartzen du, bere 2. artikuluan, lege honetan ezarritako baliabide ekonomikoak arautzearen helburua hauxe dela: lege-ek toki entitateei esleitzen dizkien eskumen eta eginkizunak betetzeko behar diren printzipio konstituzionalak, finantza aldetiko autonomia eta aski-tasuna alegia, benetan bete daitezen ziurtatzea.

Foru Lege honek bere denbora muga du, 2002, 2003 eta 2004. urteak hain zuzen, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen irailaren 21eko 20/2001 Foru Legeari jarraikiz.

Foru Lege honek, lehenengo eta behin, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoan parte hartzeko funtsaren zenbateko osoa ezartzen du eta, ondoren, zenbateko hori handitzeko sistema,

transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak deritzen kontzeptuetan. Gehikuntza hori Nafarroako Foru Komunitateko Kontsumorako Prezioen Indizearen igoera portzentuala adinakoa izanen da, hots, ekainetik ekainera bitartekoa adinakoa, urte horietako bakoitzerako, gehi ehuneko bira.

Ekitaldi bakoitzerako esleituriko partaidetzaren zenbatekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 2. idat-zatian xedaturikoarekin bat banatzen da, transferentzia arruntan, kapital transferentzien eta bestelako laguntzen bidez.

2002. urteko transferentzia arruntan eta bestelako laguntzen zenbatekoari dagokionez, abenduaren 26/1988 Foru Legeak ezartzen du aurrekontuen kargura hurrengo ekitaldira arte geroratu ez daitekeen gasturen bat egin behar eta behar adina dirurik ez dagoenean, eta gainera Foru Lege honetako xedapenen arabera kreditua handitzerik ez dagoenean, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, Foru Lege Proiektu bat igorriko diola Nafarroako Parlamentuari kreditu-gehirri bat eman dezan.

Transferentzia arruntak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123.3 artikuluan xedaturikoarekin bat, udalen eta kontzejuen artean banatuko dira. Banatzeko formulak zuzentasun eta proportzionaltasun irizpideak kontuan hartu beharko ditu, aipatu printzipio nagusiak zehazten dituzten parametroetan oinarriturik.

Hori horrela, Foru Lege honek Transferentzia Arruntan Funtsaren banaketa dakar, toki entitateen gastuaren adierazgarritzat jotzen diren aldagaien arabera banatzeko ehuneko 86ko portzentajea harturik eta gainerako ehuneko 14 zerga bidezko dirusarrerak eta herrilurretako aberastasuna eskuratzeko ahalmena erabiltzeko mailaren adierazgarritzat jotzen diren aldagaien arabera. Zehazkiago, formula berriak bizilagun bakoitzeko gastu arruntaren, haren osaeraren, adinaren arabera sailkatutako populazioaren, langabeziaren, hiri lurzorua zabaleraren, zerga ahaleginaren eta herrilurren balio katastralaren arabera ponderaturiko populazio aldagaiak hartzen ditu oinarritzat, hots, lehen aipaturiko legezko aurreikuspenak hartzen ditu kontuan.

Arau honek tratamendu ezberdina du udaletarako eta kontzejuetarako, kasuan kasuko eskumene arabera, Udalen eta Kontzejuen arteko eskumen eskuordetza eta horren ondoriozko baliabide esleipena deusetan galarazi gabe.

Dena dela, banatzeko formula berriak ez du xede orain arte indarra zuen sistema erabat haus-

tea. Trantsizio prozedura bat du, bermea duena, eta erreferentzia 2001eko ekitaldian jasotakoa da.

Kapital transferentzietan dagokionez, haien banaketa 2001-2003rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko uztailaren 3ko 2/2000 Foru Legean eta 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzko uztailaren 5eko 16/2001 Foru Legean ezarria da. Betiere Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoari lotua dago.

Funtsa banatzeko azkeneko kapituluari bestelako laguntzak deritza eta bertan hiru hauek daude sarturik: Lehenbizikoa, Iruñeko Udalar "Iruñeko Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik dagokion dotazioa; bigarrena, Nafarroako udalentsako diru konpentsazioa: parte bat 4.001etik 10.000 biztanlera bitarteko udalerrientzat "gastu aplikatuaren arabera ponderatutako biztanleria" delako aldagaiaren alderako konpentsazio gisa, eta gainerakoa 4.001etik 40.000 biztanlera bitarteko populazioa duten udalei, finantza efizientziaren kontzeptuan; eta hirugarrena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan interes komunak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkargoendako laguntza ekonomikoek buruz dagoen aurreikuspena betetzeko dotazioa ageri dira.

I. KAPITULUA Funtsaren kontsignazioa

1. artikulua. Funtsaren dotazioa.

Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan 2002ko ekitaldirako parte hartzeko Funtsarako guztira 173.168.096 euroko dotazioa ezartzen da, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko dena.

2. artikulua. Funtsaren banaketa.

2002ko ekitaldirako esleituriko partaidetzaren zenbatekoa honelaxe banatuko da:

I. Transferentzia arruntak: 107.262.089 euro.

II. Kapital transferentziak: 46.560.293 euro.

A.- Hirurteko Plana: 42.653.714 euro.

B.- Plan Berezia: 3.906.579 euro.

III. Bestelako laguntzak:

A.- Iruñeko Udalar, Hiriburutza Agiriagatik: 13.560.750 euro.

B.- Nafarroako udalentsako diru konpentsazioa: 5.594.744 euro. Horietatik 1.096.557 euro 4.001etik 10.000 biztanlera bitarteko udalerrien-

tzat "gastu aplikatuaren arabera ponderatutako biztanleria" delako aldagaiaren alderako konpentsazio gisa, eta 4.498.187 euro 4.001etik 40.000 biztanlera bitarteko populazioa duten udalei, finantza efizientiaren kontzeptuan.

C.- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 190.220 euro.

3. artikulua. 2002. urterako kreditu-osagarriak.

Honako kreditu-osagarriak onartzen dira, 2001etik 2002ra luzatutako aurrekontuko kontusail hauetan aplikatuko direnak:

– 5.591.865 euro, "Transferentzia arrunten funts orokorra" izeneko 212000-21210-4600-912100 kontusailaren kargura.

– 706.959 euro, "Iruñeko Hiriburutza Agiria" izeneko 212000-21210-4600-912103 kontusailaren kargura.

– 291.671 euro, "Nafarroako udalenzako finantza-kompentsazioa" izeneko 212000-21210-4600-912104 kontusailaren kargura.

– 9.917 euro, "Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntza" izeneko 212000-21210-4600-912102 kontusailaren kargura.

4. artikulua. Kreditu-osagarrien finantzabidea.

Aurreko artikuluan aipatutako kreditu-osagarriak, guztira 6.600.412 euro, 2001etik 2002ra luzatutako aurrekontuko kontusail honen kargura izanen dira: "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusaila.

5. artikulua. 2003. eta 2004. urteetarako aurrekontu-kontsignazioa.

1.- 2003. eta 2004. urteetarako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoan parte hartzeko funtsaren kontsignazioa honela banatuko da: transferentzia arruntak, kapital transferentziak eta bestelako laguntzak.

2.- Kapital transferentzietan dagokien kontsignazioa 46.560.293 eurokoa izanen da 2002. urterako. Horietatik 42.653.714 euro Hirurteko Planari dagozkio eta 3.906.579 euro Plan Bereziari. 46.393.328 euro 2003. urterako. Horietatik 42.486.748 euro Hirurteko Planari dagozkio eta 3.906.579 euro Plan Bereziari. 51.838.360 euro 2004. urterako. Horietatik 47.931.781 euro Hirurteko Planari dagozkio eta 3.906.579 euro Plan Bereziari.

Kapital transferentzietan dagokien kontsignazioa kontzeptuak sailkatuko da Bigarren Xedapen Gehigarrian aipatutakoaren arabera.

2004. urteko plana hauetan aipatzen diren irizpideei jarraikiz egin eta banatuko da: uztailearen 3ko 7/2000 Foru Legea, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urteetarako planari buruzkoa; azaroaren 20ko 367/2000 Foru Dekretua, arestian aipatu Foru Legea garatzen duen Erregelamendua onesten duena; eta uztailearen 5eko 16/2001 Foru Legea, 2001-2003rako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa.

Nafarroako Gobernuak 2004. urteko obren plana onesten ahal du honako lege hau onetsita-koan.

3.- 2003. eta 2004. urteetan transferentzia arruntetarako eta bestelako laguntzetarako aurreikusitako zenbatekoa kontzeptu horietarako 2002. urtean aurreikusitako zenbateko bera izanen da, gehi Nafarroako Foru Komunitateko kontsumorako prezioen indizearen igoeraren portzentajea, urte bakoitza ekainetik ekainera hartuta, eta horretaz gain beste % 2 gehituz.

II. KAPITULUA

Transferentzia arrunten eta bestelako laguntzen esleipena

6. artikulua. Banaketa-formula ezartzeko adierazgarriak.

1. Transferentzia arruntetarako partaidetzaren zenbatekoak oinarritzat hartuko ditu banatzeko formula ezartzeko ondoren aipatzen diren adierazgarriak.

2. Ehuneko 62 banatuko da bizilaguneko gastu arruntaren arabera ponderaturiko populazioarekiko zuzeneko proportzioan. Gastu hori 1994ko eta 1995eko ekitaldietako toki entitateetako kontu bateratuen batez bestekotik lortzen da, populazio tartearen arabera gehiturik, eranskinean ageri den 1. taularen arabera.

3. Ehuneko 24 banatzen da toki entearen gastu arrunt funtzionalak kontuan harturik, gastu arrunt guztiarekiko proportzioan, 1994ko eta 1995eko ekitaldietako toki entitateen kontu bateratuen batez bestekoaren arabera, eranskinean ageri den 2. taulari jarraikiz.

a) Gastu orokorreko esleiturikoa osaeraren arabera ponderaturiko populazioaren arabera banatuko da. Ponderazio hori faktore hauek bilduz lortzen da:

– Hamar urte honetako populazioaren aldaketa. Ponderazioa aldaketa portzentualaren zati osoa izanen da, eta gehienekoa ehuneko 20.

– 15 bizilagun edo gehiago dituzten populazio entitateen kopurua. Ponderazioa batetik goitiko populazio entitateengatik ehuneko 5nako izanen da, eta gehienekoa ehuneko 20.

– Populazio sakabanatua. Ponderazioa udalerriko populazio sakabanatuaren populazio guztia-rikiko portzentajearen zati osoa izanen da, gehienekoa ehuneko 20 izanen delarik.

b) Hezkuntza gastuetarako esleitua banatuko da udalerrri bakoitzean 16 urte edo gutxiago dituen populazioarekiko zuzeneko proportzioan Foru Komunitatekoaren aldean.

c) Osasun eta gizarte zerbitzuetako gastuetarako esleitua honelaxe banatuko da:

– Ehuneko 40, gastuaren arabera ponderaturiko populazioa kontuan hartuz, 4.2 artikuluan agintzen denari jarraikiz.

– Ehuneko 30, udalerrri bakoitzean Enpleguaren Institutu Nazionalean hilerro inskribaturik dauden langabeen urteroko batez bestekoarekiko zuzeneko proportzioan, Foru Komunitateko batez bestekoaren aldean.

– Gainerako ehuneko, 30 udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituen populazioarekiko zuzeneko proportzioan, Foru Komunitateko populazio horren aldean.

d) Herrilan eta hirigintza gastuetarako esleitua banatuko da hiri lurzoru netoarekiko zuzeneko proportzioan. Hori izanen da planoaren araberako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatieen batura den aldetik duen zabaleraren (azalera alfa-merikoaren) arteko aldearen ondoriozkoa, Foru Komunitatekoaren aldean.

e) Kultura eta kirol gastuetarako esleitua honelaxe banatuko da:

– Ehuneko 70, gastuaren arabera ponderaturiko populazioarekiko zuzeneko proportzioan, Foru Lege honetako 4.2 artikuluan agintzen denari jarraikiz.

– Gainerako ehuneko 30, udalerrri bakoitzean 16 urte edo gutxiago dituen populazioarekiko zuzeneko proportzioan, Foru Komunitateko populazio horren aldean.

4. Transferentzia arrunten gainerako ehuneko 14 zerga bidezko dirusarrerak eta herrilurretako aberastasuna eskuratzeko ahalmena erabiltzeko mailaren adierazgarritzat jotzen diren aldagaien arabera banatuko da. Ondorio horietarako, eragile

hauek asignatuko eta kenduko dira, hurrenez hurren:

Ehuneko 15 zerga ahalegin eta presioarekiko zuzeneko proportzioan esleituko da, portzentajeak aurreko kontzeptuei aplikatuz, ezarpen figuren pisuaren arabera, oinarritzat hartuz toki entitateen 1997., 1998. eta 1999.eko ekitaldietako kontuak. Ondorio horietarako, faktore hauek asignatuko eta kenduko dira, hurrenez hurren:

– Ehuneko 11, udal bakoitzaren Nafarroaren batez besteko zerga ahaleginarekiko zuzeneko proportzioan, udalerrri bakoitzeko populazioaren arabera ponderaturik. Zerga ahalegintzat joko da lurralde kontribuzioagatik likidatutako eskubideek duten portzentajea, ordainarazpen horrek lege baimenduriko gehieneko tasa eta errekarquak eta, etxebizitzaren kasuan, merkatuko balioaren zenbatespenak aintzakotzat hartuz lekarkeen dirusarreraren aldean.

– Ehuneko 4, udal bakoitzaren presio fiskalarekiko zuzeneko proportzioan esleituko da. Presio fiskaltzat joko da udal bakoitzaren jarduera ekonomikoengatik likidatutako eskubideek duten portzentajea, Nafarroa osorako zerga horregatik likidatutako eskubideen aldean.

Gainerako ehuneko 1, udal bakoitzaren herrilurretako ondasunen balio katastralarekiko zuzeneko proportzioan murriztuko da, kasuan kasuko udalerrrian dauden kontzeju guztienetakoa barne, Foru Komunitateko udal guztienetakoa aldean.

7. artikulua. 2. artikuluko I. ataleko hasierako esleipena. "Transferentzia arruntak" izenekoa.

1.- Banatzeko formulak, lehengo artikuluan agindutakoaren ondoriozkoak, eranskinean ageri den 3. taulan biltzen diren aldagaiekiko zuzeneko proportzioan esleituko die hasiera batez udalei ekitaldi bakoitzerako transferentzia arrunten funtsa.

2.- Udalerrian kontzejuak dauzkaten udalen kasuan, aurreko puntuan zehazten den formula aplikatzearen ondorioz udalari dagokion zenbatekoa murriztuko da, hasiera batez kontzeju bakoitzari bi kontzeptu hauen arteko aldea emateko:

a) Kontzeju bakoitzeko hiri lurzoru netoaren udalerrriarekiko proportzioa, aurreko zenbateko ondoriozkoaren ehuneko 29,49, eta

b) Kontzejuko herrilurretako balio katastralaren udalerrri osoarekiko proportzioa, herrilurretako balio katastralagatik udalari murrizturiko zenbatekoari aplikaturik.

3.- Aldagaien balioak lortzeko, eranskinean ageri den 4. taulan aipatzen diren iturburueta joko da.

8. artikulua. Transferentzia arruntei dagokien hasierako asignazioaren bermearen aplikazioa eta horren kalkulua.

1.- Formula honen arabera udal eta kontzeju bakoitzak hartutako asignazioa ez da inoiz izanen 2001. urtean transferentzia arruntengatik jasotakoa baino gutxiago.

2.- Banatzeko formula aplikatzeagatik berme hori lortzen ez dutenek bermea izan dezaten, bermatuak baino diru gehiago lortzen duten udal eta kontzejuei hasiera batez asignaturikoetatik behar diren diru-kopuruak kenduko dira, dagokien bermearen igoerarekiko proportzioan.

9. artikulua. 2. artikuluko III B) atalaren asignazioa, "Nafarroako udalenzako diru konpentsazioa" izenekoa.

1.- 4.001etik 10.000 biztanlera bitarteko udalerrirentzako dotazioa populazioaren arabera banatuko da, zuzeneko proportzioan.

2.- 4.001etik 10.000 biztanlera bitarteko udalerrirentzako dotazioa biztanleria ponderatuaren arabera proportzioan banatuko da, honela: 4.001 eta 10.000 biztanle bitarteko udaletarako, biztanleriaren proportzioan, biztanleria 1,08ren alderantzizko balioaz ponderatu dela; 10.001 eta 40.000 biztanle bitarteko udaletarako, 1,3ren alderantzizko balioaz ponderatu dela.

10. artikulua. 2. artikuluko III. ataleko gainerako kontzeptuen banaketa ("Bestelako laguntzak").

1.- Iruñeko Udalari "Iruñeko Hiriburutza Agiria" delakoagatik eman beharrekoari dagokionez, bestelako laguntzen partaidetzaren zenbatekoa abenduaren 2ko 16/97 Foru Legean xedatutakoaren arabera arautuko (agiri hori ematen duen Foru Legea)

2.- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eman beharrekoa Foru Lege honetako 11. artikuluan transferentzia arruntetarako aurreikusitako bezala ordainduko da.

11. artikulua. Behin betiko asignazioa

Udal eta kontzeju bakoitzari esleituko zaion behin betiko kopurua aurreko artikuluetan ezarritakoa, hots, Nafarroako udalerriendako transferentzia arrunten eta finantza konpentsazioaren ingurukoa, aplikatzearen ondorioz ateratzen dena izanen da.

III. KAPITULUA

Erabiliko diren aldagaiak eta ordainketak.

12. artikulua. Erabiliko diren aldagaiak.

1.- Funtsa Nafarroako udalerrien artean nola banatuko den kalkulatzeko behar diren aldagaien balioak ateratzeko, Foru Lege honen eranskinean ageri diren iturriak erabiliko dira. Aldagaien erreferentzia urtea, banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean eskura dauden Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrietako biztanleriaren inguruko azkeneko datu estatistiko ofizialena izanen da. Erreferentzia urte horretako daturik ez bada, hurbileneko urtekoak hartuko dira.

2.- Artikulu honetako 1. atalean adierazitakoa deusetan galarazi gabe, zerga ahalegina eta presio fiskala kalkulatzeko, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen arabera Toki Administrazioaren Departamentuan aurkeztu beharreko azken ekitaldiko kontuen espedientetik ateratzen diren aldagaien balioak hartuko dira, edo, bestela, ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazio espedientetik ateratzen direnak, Toki Ogasunei buruzko 227.2 artikuluan eta Lege hori aurrekontuen eta gastu publikoen arloetan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 84. artikuluan adierazi bezala. Hori guztia ezinezkoa bada, beste udal batzuek Toki Administrazioaren Departamentura bidalitako datuak hartuko dira aintzat, eta hortik ateratzen den ahalegin fiskalaren eta presio fiskalaren gutxieneko balioaren % 70 aplikatuko da.

3.- Aurreko zenbakietan ezarritakoa gorabehera, udal edo kontzejuen banaketa edo elkarketa prozesuak gertatzen direnean, horien ondorioz banaketan kontuan hartu beharreko aldagaien balioak aldatzen badira, aldagaien ondoriozko zenbatekoa birkalkulatuko da, banaketa egiten den unean dagoen administrazio egoerara egokitzeko, betiere administrazio egoera berri horren inguruko datu ofizialik ez badago.

13. artikulua. Ordainketa.

1.- Toki Entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan Parte Hartzeko Funtساتik esleitzen den diruaren ordainketa lau zatitan egingen da ekitaldi bakoitzean, zehazki, hiruhileko bakoitzeko lehenbiziko hamabostaldian.

2.- Lehenbiziko bi ordainketek aurreko ekitaldian jasotakoaren % 25 egingen dute.

3.- Hirugarren ordainketan, toki entitate bakoitzari urte horretan dagokion behin betiko kopurua kalkulatu da eta, aurreko bi ordainketetan jasotatik abiatuz, kalkulatuakotakoaren % 75era iristeko falta dena ordainduko zaie. Laugarren hiruhilekoan gainerako dirua ordainduko da.

4.- Udalek eta haien barreneko kontzejuek hitzarmena sinatua duten kasuetan, entitate horiendako ordainketak hitzarmenean ezarri bezala egiten ahalko dira, deusetan galarazi gabe banaketarako formula aplikatuz entitate bakoitzari hasiera batean dagokion ekarpenaren zenbatekoa.

IV. KAPITULUA Kapital-transferentzien esleipena

14. artikulua. Kapital transferentzietarako diruaren banaketa.

Partaidetza-funtsan kapital transferentzietarako bideraturiko dirua, 2002., 2003. eta 2004. urteetarako Hiru Urteko Planari dagokiona, uztailearen 3ko 7/2000 Foru Legean xedatu bezala banatuko da. Izan ere, haren aplikazioaldia 2004. urtera arte luzatu da.

Partaidetza-funtsaren kapital transferentzietarako bideraturiko dirua, 2002., 2003. eta 2004. urteetako Plan Bereziari dagokiona, uztailearen 5eko 16/2001 Foru Legean eta hori garatzeko arategian xedatu bezala banatuko da. Hortaz, haren aplikazioaldia 2004. urtera arte luzatu da.

15. artikulua. Hiru Urteko Planaren 2004. urteko Proiektuaren obra plana nola prestatu.

1.- Hiru Urteko Planaren 2004. urteko Proiektuaren obra plana Plan Zuzentzaileetan ezarritakoari jarraikiz eginen da, plan horietan aurreikusitako obrak sartuz, betiere haien aurrekontuak Foru Lege honetan finkatutako dotazioekin bateragarriak baldin badira.

2.- Toki Programazioko azpiegitura obrei dago kienez, 2001-2003 aldirako Hiru Urteko Planean sartuta egon arren, kostu handia zela kausa, zati-ka egin ziren obrek lehentasuna izanzen dute, betiere Nafarroako Gobernuak 2001-2003 aldirako hainbat obra Planean sartzeko hartutako Erabakiaren bidez onetsitako diru-kopuruaren heren bat, gehienez, egin arte, salbu eta lehenbiziko fasean sartutako azpiegitura amaitzeko falta den obra-zatia munta ekonomiko txikikoa denean, orduan, oso-osorik sartuko baitira. Orobat, eskaeretan lehenetsi beharrezkotzat hartu arren, eskaera osoaren kostu ekonomiko handia zela kausa, obra zati bat baino ez sartua zuten toki entitateen obrak sartuko dira planean, aurreko irizpideari jarraikiz.

Gainerako dirua 2001-2003 aldirako Toki Azpiegituren Hiru Urteko Planean finantzatu gabe gelditu ziren obrak finantzatzeko izanzen da, hartan lortutako kalifikazio-ordenaren arabera, baina alde batera utziko dira ezinbestean edo ustekabean etorri izateagatik finantzatu ziren obrak.

3.- Toki Garapenerako inbertsioak 7/2000 Foru Legean aurreikusitako obra berberei aplikatuko zaizkie.

4.- 2004. urteko planean sartzen diren obrak kudeatu eta burutzeko prozedura 2001-2003 aldirako Hiru Urteko Azpiegituren Planari buruzko uztailearen 3ko 7/2000 Foru Legean eta horren garapenerako erregelamendua onetsi zuen azararen 20ko 367/2000 Foru Dekretuan ezarritakoa izanzen da, behar diren egokitzapenak eginda.

16. artikulua. Plan Bereziaren 2004. urteko Proiektuaren obra plana nola prestatu.

1.- Finantzatu diren obrak hauexek dira: Goi presioko Ur Horniduraren Plan Zuzentzailea eta Programazio Lokalari buruzko obrak, uztailearen 5eko 16/2001 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

2.- 2004. urteko Plan Bereziako obrak hautatu eta lehenesteko, bakoitzaren ekarpenen araubidea finkatzeko eta Plana prestatu, garatu, kudeatu eta burutzeko prozedura, halaber, aipatu Foru Legean ezarritakoa izanzen da.

Toki Programazioko obrei dagokienez, 2001-2003 aldirako Plan Bereziaren finantzatu ez zirenak hartuko dira aintzat, hartan lorturiko kalifikazioen ordenaren arabera.

3.- Plan honen xede diren toki entitateei dago kienez, Foru Lege haren eranskinean edo, bestela, Nafarroako Parlamentuak onetsiko duen zerrendan adierazitakoari jarraikiko zaio.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako Toki Entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko Funtsaren transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak emateko 1999., 2000. eta 2001. urteetan egindako banaketak behin betikoak dira.

Bigarrena. Lege hau indarrean izanzen den urteetan, kapital transferentzietarako finkatu den diru-kopurua, eurotan, honako hau da, kontzeptuz kontzeptuz:

	2001	2002	2003	2004	Guztira 2001-2004	
	Pezetak (milakotan)	Euroak	Euroak	Euroak	Euroak	Euroak
A) Plan zuzentzaileak						
Azterlanak	10.100	60.702	60.702	60.702	60.102	242.208
Goi presioko ur-hornidura	1.177.660	7.077.879	7.077.879	7.077.879	8.137.704	29.371.341
Ibaian arazketa eta saneamendua	707.000	4.249.156	4.249.156	4.249.156	3.906.579	16.654.047
Hondakin solidoak						
Tratamendua	126.250	758.778	758.778	2.797.159	3.606.073	7.920.788
Bilketa	186.850	1.122.991	1.122.991	846.797	1.839.098	4.931.877
Iruñerriko Mankomunitatearen hitzarmena	579.600	3.483.466	5.891.842	2.137.981	–	11.513.289
Hondakin bereziak	–	–	–	1.824.709	300.501	2.125.210
Guztira Plan Zuzentzaileak	2.787.460	16.752.972	19.161.348	18.994.383	17.850.057	72.758.760
B) Programazio lokaleko inbertsioak						
Ur hornidura						
(plan zuzentzaileetan sartu gabea)	15.150	91.053	91.053	91.053	102.173	375.332
Hornidura eta saneamendu sare lokalak	1.313.000	7.891.289	7.891.289	7.891.289	7.813.158	31.487.025
Elektrifikazioak	25.250	151.756	151.756	151.756	144.243	599.511
Kaleko argiteria	227.250	1.365.800	1.365.800	1.365.800	1.562.632	5.660.032
Zola emateak	883.750	5.311.444	5.311.444	5.311.444	17.526.577	33.460.909
Udalen eraikinak	202.000	1.214.044	1.214.044	1.214.044	1.412.379	5.054.511
Hilerriak	101.000	607.022	607.022	607.022	558.942	2.380.008
Herrietako bideak	101.000	607.022	607.022	607.022	691.164	2.512.230
Guztira programazio lokalean	2.868.400	17.239.430	17.239.430	17.239.430	29.811.268	81.529.558
C) Garapen lokala	40.400	242.809	242.809	242.809	270.450	998.877
D) Plan gehigarria 4050	1	6	6	6	6	24
E) Plan berariazkoa	1.000.000	6.010.121	6.010.121	6.010.121	–	18.030.363
F) Plan berezia	350.000	2.103.542	3.906.579	3.906.579	3.906.579	13.823.279
GUZTIRA	7.046.261	42.348.880	46.560.293	46.393.328	51.838.360	187.140.861

Xedapen iragankorra

Foru Lege honek indarra hartzearekin batera, Nafarroako Toki Entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko Funtsarako 2002. urtean esleitutako diru-kopuruak erregularizatuko dira, Lege honetan adierazitakoari egokitzearren.

Azken xedapenak

Lehen. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege hau garatzeko behar diren arauak eman ditzan.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkaria Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, baina 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

ERANSKINA**1. TAULA**

40.000tik goiti	1,42
10.001etik 40.000ra bitarte	1,30
4.001etik 10.000ra bitarte	1,01
2.001etik 4.000ra bitarte	1,12
501etik 2.000ra bitarte	1,12
1etik 500era bitarte	1

2. TAULA**GASTU FUNTZIONALAK EHUNEKOAK**

Gastu orokorrak	% 41,86
Hezkuntza gastuak	% 8,01
Osasun eta gizarte zerbitzuetako gastuak	% 7,61
Herrilan eta hirigintza gastuak	% 29,49
Kultura eta kirol gastuak	% 13,03

3. TAULA**ALDAGAIA EHUNEKOAK**

Gastuaren arabera ponderaturiko pop.	% 64,92
Osaketaren arabera ponderaturiko pop.	% 10,04
16 urte edo gutxiago dituen pop.	% 2,86
65 urte edo gehiago dituen pop.	% 0,55
Langabeen kopurua	% 0,55
Hiri lurzoru netoa	% 7,08
Zerga ahalegina	% 11,00
Presio Fiskala	% 4,00
Herrilurretako balio katastrala	% -1,00

4. TAULA**ALDAGAIK ETA APLIKATUTAKO ITURRIAK**

1.- Udalerri bakoitzeko populazioa. Estatistika-ko Institutu Nazionalak emana (urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa).

2.- Udalerri bakoitzeko populazioaren aldaketa azken hamar urte honetan. Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuekin egina.

3.- Kontzejurik gabeko populazio entitateen kopurua (15 biztanle edo gehiago dituztenena). Estatistikako Institutu Nazionalak emana.

4.- Herriguneetatik kanpoko populazioa. Barreiatuko populazioa. Estatistikako Institutu Nazionalak emana

5.- Udalerri bakoitzeko 16 urtetik beheitiko populazioa. Estatistikako Institutu Nazionalak emana

6.- Udalerri bakoitzeko 65 urtetik goitiko populazioa. Estatistikako Institutu Nazionalak emana

7.- Langabeen kopurua. Estatistikako Institutu Nazionalak emana

8.- Hiri lurzoru netoaren azalera. Planoan ageri den azalera (azalera grafikoa) ken lurzatiaren azalera (azalera alfazenbakizkoa). Nafarroako Gobernuak Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana. Erreferentzia urtea, udalerrietako populaziorako ematen den berbera.

9.- Zerga ahalegina:

Lurralde Kontribuzioagatik likidatutako eskubi-deak. Udalek Toki Administrazio-ko Departamentuari igorritako kontuen lokidazioetatik aterea.

Udal bakoitzaren hirilur kontribuzioaren sarrera potentziala. Udal bakoitzaren hirilur kontribuzioaren likidazio oinarria bider merkatuko prezioei egokitutako koefizientea, etxebizitzaren kasuan. Biak Nafarroako Gobernuak Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emanak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuak, bider legez ezarritako tasa gehienezkoa.

Udal bakoitzaren landalur kontribuzioaren sarrera potentziala. Udal bakoitzaren landalur kontribuzioaren likidazio oinarria. Nafarroako Gobernuak Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuak, bider legez ezarritako tasa gehienezkoa.

10.- Presio Fiskala

Jarduera ekonomikoen gaineko zergagatik likidatutako eskubi-deak. Udalek Toki Administrazio-

ko Departamentuari igorritako kontuen lokidazioetatik aterea.

11.- Herrilurren katastroko balioa. Nafarroako toki entitate bakoitaren herrilurren ondasunen

katastroko balioa da eta horretatik heldu dena. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuak.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko apirilaren 29an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko , 125, 149.1 eta 150 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea, Erregelamenduko 149 eta 150. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontutan hartuta.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko ekainaren 14ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, euskarari buruzkoak, hizkuntza horren erabilera arautu zuen ondorio juridikoetarako, bai partikularren arteko harremanetarako bai Nafarroako Administrazioen nahiz Nafarroan diharduten beste administrazioen esparrurako. Legeak euskarazko irakaskuntzari heldu zion, kontuan hartuz hizkuntza eremuak, nahiz eta aldi hartan legegileak ez zuen beharrezkotzat jo euskararen erabilera arautzea orduan Nafarroan eskaintzen ziren unibertsitate irakaskuntzetan.

Garai hartan Nafarroan zegoen zentro baterako baizik ez zen unibertsitate maila kontuan hartu: maisu-maistrak prestatzeko goi mailako zentroa, "euskarazko irakaskuntzan behar ziren irakasleei prestatzuntza egokia" ziurtatzeagatik. Bestela esanda: asmoa ez zen unibertsitate zentro batean euskararen erabilera arautzea, gainerako hezkuntza mailetan euskarazko irakaskuntza ziurtatzea baizik. Legeak, bada, ez zuen sekula deus esan garai hartan unibertsitate ikasketak eskaintzen zituzten gainerako zentroi buruz.

Geroago, apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legeak Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen eta horretan ere ez zen aipamen bakarrik ere egin unibertsitate berrian euskarak izanen zuen erabilerari buruz.

Goi mailako eta unibertsitateko irakaskuntzan euskararen erabilera arautu gabe egoteak, beraz, ondorio bat zekarren: unibertsitate zentro horie-

tan, ordura arte bezala, gaztelania edo espainola izanen zela erabili behar zen hizkuntza bakarra.

Gaur egun, ordea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen erabilerari buruz legeak deus ez esatea lege hutsunetzat hartzen da eta hutsune horrek ondorioak ditu, batez ere segurtasun juridikorik eza hizkuntza kontuetan, gizartearen hainbesteko eragina duen afera batean.

Horregatik, bada, Nafarroako Parlamentuaren betebeharra da arazo honi konponbidea ematea, betiere Foru Komunitateko egoera soziolinguistikoari kasu eginda, arautua egon dadin euskararen erabilera goi mailako ikaskaskuntzan, unibertsitate publikoari dagokionez eta, bestetik, unibertsitatearen administrazio publikoari dagokionez.

Foru Komunitateak eskumen oso-osoak ditu Nafarroan euskararen erabilera arautzeko. Horretan ez dago zalantza-izpirik, 1978ko Espainiako Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 1982ko Lege Organikoak diotenez.

Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua aditzera ematen du gaztelaniaz gainera Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izanen direla, bakoitza bere autonomia erkidegoan, betiere bertako estatutuen arabera. Konstituzioak onartutakoaren ondorioz, gurean, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikulua ezartzen du gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, baina euskara ere ofiziala izanen dela gaztelaniarekin batera Nafarroako eremu euskaldunetan. Hori esan ondoren, aditzera ematen du lege batean zehaztuko direla eskualde horiek.

Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, euskarari buruzkoak, behar zen tokietarako koofizialtasuna arautzeaz gain, euskararen erabilera eta euskararen zein euskarazko irakaskuntza arautzeko neurriak ezarri zituen. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen erabilera arautzeko orain hartzen diren neurriek ezartzen dute zer arauk gobernatuko duten euskararen erabilera koofiziala, hizkuntza hori garatze aldera.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen oso-osoak ditu hizkuntza kontuetan eta hori hala delarik hartzen dira Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen erabilera arautzeko neurri hauek, betiere unibertsitate mailako irakaskuntzaren esparrua ukitu gabe, hori Estatuari baitagokio, eta Unibertsitateei, daukaten autonomiaren ondorioz.

I. TITULUA Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaskuntza

1. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak gaztelania edo espainol hutsean emanen ditu izaera ofiziala eta Espainia osorako balioa duten unibertsitate tituluak lortzeko ikasketa planetan orain diren eta gero batean izaten diren irakasgai guztiak (Unibertsitateen Kontseiluak edo Unibertsitatea Koordinatzeko Kontseiluak homologatutako tituluak).

2. artikulua. Euskararen garapena delarik helburu, Nafarroako Unibertsitate Publikoak curriculum lerroak edo bestelako ikasketak jar ditzake hizkuntza horretan, titulu berekiak lortze aldera.

3. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak irakaskuntza lerro elebidunak jar ditzake Magisterioko ikasketetan, baldin eta hezkuntza sistemaren horren beharra badago, euskarazko irakaskuntzarako tituludunei prestakuntza egokia eskaintzeko. Kasu horietan ezinbestekoa izanen da aurretik Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak horren aldeko proposamena egitea eta Nafarroako Gobernuak baimena ematea.

4. artikulua. Izaera ofiziala eta Espainia osorako balioa duten unibertsitate tituluak lortzeko ikasketa planetan, lehenbiziko eta bigarren zikloan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak hautaketa libreko irakasgaiak sar litzake.

II. TITULUA Goi mailako hezkuntzako beste ikastegi publiko batzuetako irakaskuntza

5. artikulua. Aurreko artikuluetan aipatutako aginduak berdin aplikatzekoak dira gaur egun dauden Goi Mailako eta Unibertsitateko Irakaskuntzako Ikastegi Publikoetan eta Nafarroako Foru Komunitatean Unibertsitate Ikastetxeak sortu edo aitortzeko eta goi-ikasketak baimentzeko prozedurari jarraikiz sortzen direnetan.

III. TITULUA Zerbitzu administratiboak

6. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta foru lege honek indarra hartzen duenean dauden edo gero batean sortzen diren Goi Mailako eta Unibertsitateko Irakaskuntzako Ikastegi Publikoek ematen dituzten zerbitzu administratiboen eta irakaskuntzaz bestekoetan, euskararen erabilera Nafarroako gainerako Administrazio Publikoetan gai hau arautzeko ematen diren xedapenei loturik geldituko da.

IV. TITULUA

Erakundearen irudia eta herritarrentzako zerbitzuak

7. artikulua. Xedapen berak aplikatuko dira Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta oraingo edo gero bateko goi mailako eta unibertsitateko irakaskuntzako ikastegi publikoen irudi korporatibo eta instituzionalari dagokionez eta zentro horiek herritarrei ematen dieten zerbitzuari dagokionez.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honi kontra egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan xedatutakoa aurrera eramanez, garatu eta betearazteko behar diren arauzko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernándezen de Barrena jaunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroan, etxebizitzaren arloko arazoak, prezio altuek eta etxe berrien eskaintza dagoen eskareren adinakoa ez izateak eragindakoak, beste ondorio bat ere ekarri du, nahi gabekoa, "etxebizitzarako kontuak" izenez ezagutzen direnen inguruan: horien titularrek ez dute bermerik BOE etxe-

bizitzak eskuratu ahal izateko eta beraz, etxebizitzaren erosteko aurrez finkaturiko bost urteko epea iraganik, aurreztutako diruaren zati bat galtzen dute eta, okerrago dena, egoera horretan are zailagoa bihurtzen da etxebizitzaren jabe egitea.

Nafarroako Gobernuak abenduaren 17an emaniko 344/2001 Foru Dekretuak PFEZ Erregelamendua aldatu zuen eta urte bat gehitu zion 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera irekitako etxebizitzarako kontuen epeari. Gure ustez gauza bera egin zezakeen 1996ko urtarrilaren 1etik aurrera irekitakoekin, une hauetan errenta aitortzen ari dela eta horiekin gertatzen ari baita lehen esan duguna, alegia, aurreztutakoaren zati bat itzuli beharra.

Gure iritziz urtebeteko luzapenak ez du arazoa konpontzen, eraikitako babes ofizialeko etxebizitzaren kopuru txikia dela-eta, lehen esan bezala. Horrexegatik planteatzen dugu etxebizitzarako kontu horietan ez ezartzea indarraldiaren urte kopuru zehatzik, eta muga aurreztutako zenbatekoaren araberakoa izatea, gehienez ere 60.000 euro. Ildo horretan, sine qua non baldintza izanen da kontu horien titularrek urtero hartzea parte BOEen adjudikazioetan eta eskabide horiek, baremoan ezarritako baldintzak beteta ere, ukoa jaso izana.

Horregatik guztiagatik, foru lege proposamen hau, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzekoa, aurkeztu dugu Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsi dezan.

TESTUA

Foru lege honen bidez xedapen gehigarri bat eransten zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeari. Hauxe da:

Xedapen gehigarria

“1996ko urtarrilaren 1etik aurrera irekitako etxebizitzarako kontuek desgrabatu ahal izanen dute, urte mugarik gabe, 60.000 euroko gehiengo zenbatekoan, inbertitutako dirua, baldin eta egiaztatzen bada titularrak zergaldi bakoitzean

BOE baten adjudikazioa eskatu duela, eta eskabi-deari uko egin bazaio. Nafarroako Gobernuak behar diren tresnak garatuko ditu, 2001eko ekitaldiari dagokionez dagoeneko eginik dauden aitorpenetan aldaketa horren ondorioz ateratzen dien zenbatekoak itzultzeko.

Foru Lege proposamena, Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzekoa

TRAMITERA EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen.

Nafarroako Gobernuak 2002ko maiatzaren 13an hartutako erabaki batean, aipatu foru lege proposamena tramitatzearekin ados ez dagoela adierazten du, aurrekontuko kredituen gehikuntza

suposatzen duelako. Erregelamenduko 145.3. artikuluekin bat, ERABAKI DA:

1. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko foru lege proposamena, Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzekoa, ez tramitatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko ekainaren 7ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proposamena 2002ko otsailaren

7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Burlatan ikastetxe publiko berri bat eraiki dezan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Burlatan ikastetxe publiko berri bat eraiki dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozio hau tramitatzeko eskatu du.

Burlatako Ermitaberri ikastetxe publikoaren gurasoen elkarteak, Parlamentuan eginiko agerrialdi batean, zenbait datu azaldu zituen, Burlatan ikastetxe publiko berri bat eraikitzekeo premia dagoela agerian utzi zutenak, Ermitaberri ikastetxeak jasotzen duen eskaera gero eta handiagoa dela ikusirik.

Halere, Hezkuntza kontseilariak eginiko agerrialdian, bere aldetik, aipatutako guraso elkarteak emandako datuez beste batzuk aurkeztu zizkigun eta horien arabera esan zuen ikastetxeak gaur egun baduela bere lana funtzionaltasunez eta errentagarritasunez betetzeko behar adina toki.

Irizpide desberdin horiek argitzeko asmoarekin, Parlamentu honetako Hezkuntza Batzordeko

kideok aukera izan genuen ikastetxea ezagutzeko eta bertatik bertara ezagutzeko haren beharrak eta egoera. Bisita hartan, gure iritziz, ikastetxekeo arduradunek eta gurasoen elkartekeo ordezkariak emandako datuak berretsi ziren.

Datu haietan ageri zenez, ikastetxearen hasierako aurreikuspenak 213 ikasle hartzea zen, egun matrikulaturik dauden ikasleak, ordea, 393 dira. Eskaera handitzearen ondorioz, ikasgelak hartzeko zenbait modulu eraiki eta areto batzuk egokitu behar izan ziren iaz.

Emandako datuen arabera, Ermitaberriko ikastetxe berria eraikitzekeo arrazoiak ezin ukatuzkoak dira:

1. Ikasle kopuru gehiegizkoa eta, haren ondorioz, aurrefabrikaturiko moduluak prestatu beharra, erreforma etengabeak eta abar.

2. Burlatako hirigintza planeamenduan bada gune bat ikastetxea paratzeko aurreikusirik.

3. Matrikulazioaren etorkizuneko aurreikuspenen arabera ikastetxean hartu beharreko ikasleen kopuruak gora egingen du eta horrek egoera jasan ezina ekarriko du 2003/04 ikasturtean.

Horregatik guztiagatik honako erabaki proposamenak aurkeztu ditugu eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak abiaraz ditzan Ermitaberri ikastetxeak egun duen eskaerari, baita aurreikusirik duenari ere, erantzunen dion ikastetxe berri bat eraikitzekeo Burlatan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxe hori 2003-2004 ikasturtean zehar jardunean egon dadin.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Ministerioaren Sektore anitzeko Plana, 2001-2005 eperakoa, gure Komunitatean aplikatu dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Ministerioaren Sektore anitzeko Plana, 2001-2005 eperakoa, gure Komunitatean aplikatu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztan jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du eztabaidatu eta onesteko, bidezkoa bada.

Badirudi erakunde publikoetan eta beste zenbait tokitan interes gero eta handiagoa dagoela erakusteko HIESaren arazoa kontrolaturik dagoela, eritasuna ez garatzeko tratamendu eraginkorrrak badirelako.

Hala islatzen da, hitzez hitz, gure Foru Komunitateko HIES programan, garrantzia galdu eta estrategia aldetik balio gutxi baitu. Programa hori Osasun Publikoaren Institutuan dago kokaturik, eta aurrekontuko lerroa, berriz, zuzenean dago Osasun Departamentuaren menpe. Horrek hainbat egoera eragin ditu, hala nola isolamendua, ordezkaritasun txikia, ekintzarako eta proposamen berrietarako eremu eskasa eta erraztasun gutxi, eta programa hori atzeraka doan edo bere horretan, behintzat, dagoen zerbait izatea.

Osasun Ministerioaren sektore anitzeko plan berriak (2001-2005) funtsezko helburu du, oraingoan ere, hasitako ekintzek irauteko modua izan dezaten bermatzea eta erantzuna ematea izurria-

ren bilakaeratik heldu diren premia berriei, eta beraz, prebentzioari eta sektore anitzeko estrategiak sendotzeari emandako lehentasuna berri- tzea.

Azken urteotan ahalegin handiak egin dira HIES kasuen kopurua gutxitzeko tratamendu berriei esker; horren ondorioz ere, seropositiboen bizi iraupena luzatu egin da baina horrek infekzioa kutsatu dezaketen pertsonen kopurua gero eta handiagoa izatea ere ekarri du. Horrekin batera, antzematen ari da prebentzio neurriak lasaitasunez hartzen direla, HIESa heriotza eragiten ez duen eritasuna delakoan. Hori dela-eta, beharrezkoa da prebentzioko esku-hartzeei eustea eta indarra ematea, infekzioa dutenei ez ezik populazio osoari eta populazio talde ahulenei ere zuzen- durik.

Une honetan prebentzioari lehentasuna ematea garrantzizkoa da batetik, osasun publikoko arrazoiengatik eta bestetik, infekzio bat saihestek 12.000tik 24.000 eurora bitarteko aurrezpena dakarrelako, urtean, pertsona bakoitzeko, tratamendu berrietan bakarrik, gehi osasun laguntza- ren kostua, proba bereziak eta abar.

Aurrerapen terapeutikoen ondorioz, albiste onak zabaltzen ari dira lau haizetara, baina tratamendu berriekin hasiera batean izan zen baikortasuna epeltzen joan da pixkanaka. Behin betiko sendabiderik ez izateak, egun erabilgarri diren farmakoen nahigabeko ondorioek eta horiek dakartzaten atxikipen arazoek egoeraren ikuspegi erre- alistagoa osatu dute.

Bizi iraupena luzatzeak ez du esan nahi bizi kalitatea hobetzea gizartearen sostengua behar bezalakoa ez bada. Arestian aipatutako sektore anitzeko planaren arabera, beharrezkoa da prebentzio neurriak berdintasunez eskuratu ahal izatea eta horrez gain, programa bereziak taxutzea gizartearen bazterturik daudelako edo kulturaz desberdinak direlako egoera ahulagoan dauden pertsonentzat, diskriminazioa gutxitzeko behar diren neurriak sustatzeko horrela. Ez dago ahulezia murrizterik egiturazko baldintzak hobetu gabe. Onartu beharra dago esku-hartzeak taxutzean ezinbestekoa dela kontuan hartzea osasunean eragina duten baldintza politikoak, ekonomikoak, gizarte, kultura eta ingurunearen aldetikoak, baita

jokabidearekin zerikusia dutenak eta biologikoak ere.

GKEen lan baloraezina erakundeek eta profesionalek egiten dutenaren osagarri da. Nahitaezkoa da biztanleen artean jokabide osasuntsuak sustatzeko, gaixoei eta haien ingurukoei laguntza psikologikoa eta zainketak emateko eta gizartearen giro egokia sortzeko, eritasunaren normalizaziorako eta bazterkeria mota ororen kontra borrokatzeko bide eman dezan.

Horrexegatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gure Foru Komunitatean ezar dadin Osasun Ministerioaren 2001-2005 urteetarako sektore anitzeko plana.

2. Finkaturik dauden programak sendotu ditzan aurrekontuan diru gehiago emanez, premia berriei erantzuteko programa berriak taxutzeko.

3. Aurrekontuan diru gehiago eman dezan, hitzarmen luzeagoekin, programen egonkortasuna bermatzeko eta GKEek modu duinean bete dezaten beraien lana.

4. HIESa duten gaixoei lan egin ahal izateko neurriak azter ditzan.

5. Neurriak azter ditzan, Minusbaliotasunei buruzko Legea hain murriztailea ez izateko eta barnean hartzeko GIBen bidezko infekzioa, oinarritzko errenta jasotzearen ondorioetarako.

6. Eriek hiriguneetan dauden etxe babestueta eta harrera etxeetako zerbitzuaz baliatu ahal izateko neurriak ezar ditzan.

7. Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu ahal izateko neurriak azter ditzan.

8. Gizatalde horiek etxeak errentan hartzeko eskaintzak handitu ditzan.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an.

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kalitateari buruzko Legeak jasotako hezkuntza-arloko neurriak aplikatu ez ditzan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kalitateari buruzko Legeak jasotako hezkuntza-arloko neurriak aplikatu ez ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Estatuan, hezkuntza sistemak bi erreforma nagusi ezagutu ditu azken urte hauetan: 1970eko erreforma orokorra eta 1990ekoa, LOGSE izeneko legeak itxi zuena. Lege hori aurrerakoia izan zen, hezkuntzaren demokratizazioan aurrera pausak ekarri zituen, nahitaez eskolaturik egoteko denbora luzatzea, aukeren berdintasuna, ikasleen aniztasuna aintzat hartu eta arreta eskaintzea, adibidez. Horrela, bete egiten zen Konstituzioak hezkuntzaren arloan agintzen zuen bermea, alegia, hezkuntza unibertsala eta doakoa, bizikidetasunaren printzipio demokratikoei eta oinarritzko eskubide eta askatasunei zor zaien errespetuan oinarriturik giza nortasuna erabat garatzeko helburua duena.

Bi erreforma horiek osagai komuna zuten: hezkuntzaren aldaketaren beharra belaunaldi berrien aurrerapen soziala berdintasunezko testuinguru irekiago baterantz bultzatzeko, 70eko erreformarekin frankismoaren amaieran hasitakoari segida emanez, eta zuzenbidezko estatu batean oinarrituriko demokrazia sendotu baten heldutasuna, 1990eko erreforma sozialistaren eskutik etorria. Bi kasuetan, proposamenak ontzeko hausnarketaaldi bat izan zen alde aurretik, eta hezkuntza sistemen 90eko erreformak adostasun zabala erdietsi zuen gizartearen eta hezkuntza munduan, erreformaren aurreko urteetan sektore guztiei begira lan egin baitzen adostasun sozial eta politiko handia izanzen zuen lege testu bat lortzeko.

Kalitatearen legea izan behar denak, zeinaren edukia komunikabideen bitartez ailegatu zaigun filtrazio ez-ofizialen bidetik, PPren borondate politiko erabatekoa Espainiako demokraziaren lehendabiziko bi hamarkadetan gizarteak bereganaturiko zenbait lorpenetan atzera egitea du abiapuntu. Ez du agertzen diagnostiko zehatzik hezkuntza sistemak bere osotasunean aurrean dituen arazo, asmo eta premia sozialen gainean, ez du agertzen baloraziorik LOGSEren aplikazio norabiderik gabekoak —baliabide eskasiaren eta borondate politiko ezaren ondorioz— izan dituen emaitzen gainean, alde batera utzirik legean bertan erreforma partzialek azken urteotan eragindako mutulazioak.

Hezkuntza sistema lehiakortasun handiko sistema, selektibo eta baztertzaila bihurtzeko ahalmen osoa duen eskuineko gobernu baten kontraerreforma da. Ikuspegi sozialetik, Kalitatearen Legea inbutuaren legea izan daiteke, etorkizuneko herritarrak goiz sailkatuko dituelako eta, beraz, oso baztertzaila izanzen delako. Ikuspegi politikoetik, IUN/NEBen iritziz eskubide eta askatasunak bermatzen dituen gure sistema demokratikoaren kontrakoa da eta demokraziak berez duen berdintasunaren aldeko apustua erasotzen du.

Kalitatearen Legea izenekoaren alderdi orokorreari buruz IUN/NEBekook iritzi hauek plazaratu nahi ditugu:

- Kalitatetzat ikasleak sailkatu, hautatu eta bereiztea hartzen duen hezkuntza eredua ezartzen du.
- Finantziatorako gutxieneko konpromisorik ere ez du.
- Babesa ematen die funts publikoak irakaskuntza pribatua ordaintzeko erabiltzearekin eta

“ikasle gogaikarriak” bereizi eta bidaltzearekin zerikusia duten eta orain aplikatzen diren politikiei.

- Legearen aurretiko tramitazioa ez da zorrotza izan, arin eta presaka egin da, modu partzialean, eta alboratu egin du hezkuntza munduaren sektoreekin adostasuna lortzea.

- Ez da bat heldu autonomia erkidegoetan gauzatzen ari diren hezkuntza politikekin eta errealitate berrieekin —hala nola atzerriko ikasle etorkinen presentzia—, atzean dagoen asmoa delako horiek bereizi eta esku lan merkearen merkatuan azkar sarraraziko dituzten programa berezi laburragoetara bideratzea.

- Haur hezkuntzaren arloan, haurrentzako laguntza eta zaintzara itzultzeko apustua egiten du, eta derrigorrezko irakaskuntzan ikasleak lehenbailehen bereizten hasiko den sistema gogor baten alde, ikasleak 12 urtetik hasita bidaltzen hasi baitaiteke. Derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoan, azkenik, atzera egiten du, errebalidara, ibilbide paraleloetara eta unibertsitatera sartzeko proba anitzetara.

Horregatik guztiagatik honako erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan ezarri Nafarroan “Kalitatearen Legea” izenarekin ezagutarazi diren hezkuntza neurriak, ikasleak sailkatu eta hautatzea, ikasgela paraleloetan bereiztea eta ibilbide murriztuetara bideratzea ekar dezaketanak, hezkuntza indartzeko, egokitze arazoak edo eskola atzerapena bezalako argudioez jantzirik, kalitatetzat sailkatzea hartzen duen inbutu sistema batera atzera bueltatzea eraginien duelakoan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza arloan ditugun eskumenetan sakon dezan, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua hobetzeko ikastetxeetako integrazioari, parte hartzeari eta elkarbizitzari begira, baliabideak ziurtatzeko hezkuntza sisteman kalitatea eta aukera berdintasuna izan daitezten, eta aurrera egin dezan hezkuntza sare bakarraren planifikazioan itunen sistema orokorra berrikusiz, funts publikoek baliatzen diren ikastetxe guztien betebeharrak eta prestazioak maila berean jarriz eta hezkuntza publiko eta laikoa sustatuz.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarietara zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192 eta 193. artikuluen babesean, honako mozio hau aurkeztu du Gizarte Gaietako Batzordean tramitatzeko.

Kontuen Ganbarak Minusbaliatuentzako 1995eko programari buruz eginiko txostenak, Parlamentura 1997ko maiatzean igorritakoak, ondorioen artean honako gomendio hau egiten zuen: "Egungo itun-sistemaren aldaketa sakona, honakoak bermatuko dituzten baldintza-sorta normalizatuak garatzea ahalbidetuko duena: laguntza-kalitate egokia, Institutuak bere gain har dezakeen kostua eta onuradunaren eros ahalmenaren araberako tarifa egokiak. Halaber, beharrezkoa da Administrazioak itunen bideragarritasun ekonomikoa eta laguntza-kalitatea ziurtatuko dituzten kontrolak gauzatzea".

Egia da azken urteotan aurrera pausak eman direla itunen gaineko ikuskaritzaren kontrolean, adjudikazioak egiteko modua homogeneousagoa dela eta itunaren kostua puntuz puntu zehazturik dagoela, eta horri esker aukera dagoela jakiteko zein kontusaili eta zenbatekori dauden atxikiak

langileria kostuak, hornigaiak, industria mozkina eta abar.

Nolanahi ere, beharrezkoa da onartzea badela eremu zabal bat jarduketarik izan ez duena. Moduluak era askotakoak dira oraindik eta zerikusia dute zentro bakoitzaren historiarekin. Ez da argi zehaztu zentro bakoitzeko laguntza mota eta zentro bakoitzaren premiak kalitatez asetzeko zer ratio behar diren. Itunaren prezioa gaurkotzeko ere KPla hartzen da oinarritzat, eta horrek arazoak sortzen ditu enpresa kontzesio-hartzailearen eta langileen artean urteroko lan baldintzak eta lansarietak negoziatzerakoan.

Hausnarketa horien haritik atera dezakegun ondorioa da, oker egoteko beldurrik gabe, ez dela Kontuen Ganbarak eginiko gomendioa bete, alegia, egungo itun-sistemaren aldaketa sakona egin, baizik eta, gehienez ere antolaketako zenbait aldaketa.

Egoera horren eraginez, Nafarroako Gobernuarekin ituna izenpeturik duten zentroetako langileen lan baldintzak eta foru titularitatea duten zentroak kudeatzen dituztenetakoak desberdinak dira.

Sektoreko sindikatuek arazo horiekin loturiko txosten eta lanak egin dituzte, bai eta nabarmendu ere honako desberdintasun hauek:

1. Zentroetako lan baldintzak oso desberdinak dira.

2. Irabazi asmoa duten enpresek kudeaturiko zentro publikoetako lan baldintzen artean eta administrazioak berak kudeaturiko zentro publikoetako artean alde handia dago. Lansariei dagokienez, % 17ko aldea dago kasuren batean eta lanaldian 180 orduko aldea dago zentro batzuetatik besteetara.

3. Azkenik, paradoxa bat gertatzen da, zentro publiko batzuk kudeatzen dituzten enpresetan 12 langile mota daude, lanaldiaren eta lansarien araberak.

Azterketa honen ondorio gisa esan daiteke itunak heterogeneoegiak direla eta berrikuste eta gaurkotzeko sistemak ez direla egokiak behar errealetarako. Esan daiteke, halaber, moduluak desberdinak direla kasu bakoitzean eta ez dutela bermatzen laguntzaren kalitate ona.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat langileen lansariena da. Ez da koherentea ezta bidezkoa ere administrazioak bere lansarien sisteman antzinasuna asko saritzea eta aldi berean ituna gaurkotzeko sistema KPIan oinarritzea.

Bestalde, ezgaitasuna duten pertsonentzako zentrozen gastuak asko gehitu dira. Halere, laguntza hartzen duen pertsona bakoitzaren kostuari begiratuta, aldea dago oraindik administrazioak kudeatzen duen zentro publiko batean izan edo irabazi asmoa duen enpresak batek kudeatutako batean izan.

Itun eta hitzarmen bakarrerako jarraitu beharreko adibidea izanen da Hezkuntza Departamentuak Foru Komunitateko zentro itunduekin gauzatatutakoa bai ordainketa eskuordetua ezartzean bai itundutako zentroetako langileen lan baldintzak pixkanaka parekatzean.

Egoera horren aurrean honako erabaki proposamen hau proposatu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezgaituentzako zentro publiko itunduetarako enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra izenpetzea bultzatuz, zentro eta enpresa desberdinetako langileen artean gerta-

tzen diren diskriminazioak desagertu daitezzen. Hitzarmen berri horrek aintzat hartu beharko ditu lan eta lansarien baldintzak homogeneousak izatea, eginkizunak argituko ditu, modu argian ezarriko ditu langile ratioak egoitzan dagoen pertsona bakoitzaren laguntza motaren eta minusbalioetasun mailaren arabera.

Era berean, haren helburuetako bat izan beharko da 35 orduko lanaldia lortzea aldi baterako ekimen pribatuak kudeatzen dituen titularitate publikoko zentro guztietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du itunetan KPIari loturik ez dauden birbalorazioak dituzten klausulak ezartzean, bestelako gaurkotze indizeak erabiliz, langileek lanaren eta lansarien eremuan egiten dituzten eskaerei erantzuteko modukoak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren aurrekontu kredituak gai dituzten enpresa adjudikazio-hartzaileek aurretik aurreikusitako konpromisoak bere gain hartu eta bete ahal ditzaten.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan". Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu behar zen, eta Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo

Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2002ko apirilaren 15eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Adierazpen instituzionala, maiatzaren 24an “Bakearen aldeko Emakumeen Nazioarteko Eguna” ospatzen dela-eta

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“Egun, gatazka armatu gehienak estatuen mugen barrenean gertatzen dira. Barne gatazka izaten dira, populazio zibilean kalte izugarriak eragiten dituztenak. Garai batean, emakumeak seguru zeudelako ustea zegoen zabaldurik, emakumea izateagatik beragatik eta, bereziki, ama izateagatik, gerren gehiegikerien kontra babesturik zeudelako. Azken gatazkek eta egungoek erakutsi digute ikuspuntu hori ez dela beti errealtatearekin bat heldu. Aitzitik, erasoak pairatzen dituzte hain zuzen emakumeak izateagatik eta kalte eta ondorio larrienak jasaten dituzte askotan. Maiz, gatazkan dauden taldeek etsaien taldeko emakumeak bortxatzen dituzte, horiek iraindu, izutu eta garaitzeko xedearekin.

Gatazka armatuek emakumeengan eragiten dituzten ondorioak hainbat dira:

– Leku-aldatzeak: pertsona zibilak diren aldetik, emakumeek eta neskatok indarkeriazko ekintza asko jasan dezakete gatazka armatuetan. Segurtasun ezak eta erasoak beldur izateak maiz eragiten dute emakumeen eta haien kargura dituzten pertsonen ihesa. Herrialde barrenean tokiz aldatzen direnen eta errefuxiatuen gehien-goia (% 80) emakumeak eta haurrak izaten dira kasu askotan.

– Segurtasuna: gizonezko kideak ez egoteak emakumeek betebeharrak gehiago eta handiagoak bere gain hartu beharra ekartzen du, bai bere seme-alaba eta ahaide zaharrekiko bai komunitate osoarekiko. Borrokak hastekotan direla edo gerra tokietatik ez dute alde egiten batzuetan, gudan ari direnen aurrean emakume eta ama izatea segurtasun bermea dela pentsatuz.

– Bortizkeria sexuala: bortxakeriak, prostituzio derrigortua, sexu esklabotza eta haurdunaldi behartuak gerra bide eta metodo kriminalak dira guztiak; azken urteotan arreta handia bereganatu dute, batez ere oraindik orain izandako gatazketan bortxakeria mota horretaz eman den informazio zabalaren kausaz. Emakumeen eta neskatok kontrako sexu bortizkeria beti izan da -neurri txikiagoan gizonen eta mutikoen kontrakoa-, populazio talde zehatzak makurrarazi, mehatxatu eta garaitzeko tortura gisa, eta talde horiek, azkenik, ihes egin dezaten lortzeko bide gisa. Sexu bortiz-

keria ekintza basatia eta izugarria da, biktimentzat nola komunitate osoarentzat. Nazioarteko zuzenbide humanitarioaren kontrako urratze larria da.

– Desagertutzat emaniko pertsonak: pertsonak desagertzea da gatazka armatuen ondorio samin-garrienetako bat, borrokak amaitu eta denbora luzean irauten duena. Desagertutzat emaniko gehienak gizonezkoak izaten dira, eta emakume asko eta asko ibiltzen dira zer gertatu zaien jakin nahian.

– Laguntza medikoa eskuratzea: gatazka armatuek ondorioak izaten dituzte populazio osoaren osasunean, emakume, gizon eta haurren. Ginekologia eta obstetriziako zerbitzuak bereziki garrantzitsuak dira biziak salbatzeko, baita saihestu edo gutxitzeko haurdunaldian, erditzean edo erditu ondoan izaten diren arazoek eragindako eritasunak edo ezgaitasunak. Gerra garaian, zailago bihurtzen da sendagile espezializatuek eta sostengu medikoko usadiozko sistemez baliatzea. Emakumeek, bere osasunaz arduratzeaz gain, familiaren eta komunitatearen osasun egoera egokia sustatu eta gorde behar izaten dute.

– Elikadurarako laguntza eta bestelakoak jasotzea: gatazka armatuetan populazio zibila –emakumeak, gizonezkoak, haurrak– bizirauteko funtsezko baliabiderik gabe gelditu daiteke. Gizonek armak hartzen dituztenean, ihes egiten dutenean, elbarri gelditzen direnean eta atxilotuak edo hilak direnean, edo haren arrastoa galtzen denean, horrek emakumeengan duen eragina dramatikoak izan daiteke. Emakume horiek beren beharrei eta familiakoei erantzun behar izaten diete. Gizonek egiten ohi dituzten zenbait lan zailak izan daitezke emakumeentzat oztopo sozial zein kultural direla-eta, baita lan horiek betetzeko ezgaitasunagatik; horrez gain borrokek sortzen duten segurtasun faltak ere mugitzeko aukerak mugatzen ditu. Gatazkek emakumeentzat ekartzen duten beste arrisku bat lehertu gabeko mina eta munizioena da edo eraso eta indarkeria sexualarena.

– Nazioarteko zuzenbide humanitarioa: emakumeek nazioarteko zuzenbide humanitarioan ezarritako babesa jaso behar dute.

Babes hori Genevako 1949ko lau hitzarmenetatik eta 1997ko bi protokolo osagarrietatik eta beste zenbait tresnataz heldu da. Emakumeek, beraz, babes orokorra jaso behar dute, hau da,

gizonezkoei eman beharrekoaren berdina, eta babes berezia, emakume diren aldetik dituzten premiak kontuan harturik. Borroketan parte hartzen ez duten edo parte hartzeari utzi dioten emakumeak babesturik daude gudaldien ondorioen eta abusuzko tratuen aurrean. Emakumeek eskubidea dute gizalegezko tratua jasotzeko eta haien bizia eta integritate fisikoa errespetatuak izan daitezen. Debekaturik dago borrokan ari diren alderdiek tratu txarrak ematea emakumeei, haiek torturatzeko edo bortizkeriaz erasotzeko. Babes berezia dute haien ohorearen kontrako edozein erasoren aurrean eta bereziki bortxakeriaren, prostituzio derrigortuaren eta lotsaren kontrako beste edozein motatako erasoren aurrean.

Gaur egun mundu osoan emakume talde asko aritzen diren bakearen eta gatazkei irtenbide

baketsua ematearen alde, gerrek gizarteetan oro har eta emakumeengan bereziki dituzten ondorio gogorrez jabeturik daudelako.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du haren esku dauden jarduketa guztiak gauzatzeko nazioarteko zuzenbide humanitarioa betetzea errealitatea bihur dadin munduan diren gatazka guztietan, eta gatazkak elkarrizketaren bidez, justizian eta norbanakoen eta gizataldeen eskubideen errespetuan oinarriturik konpontzeko neurriak sustatzeko.”

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 22an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Galdera, gas-hornidurarik ez daukaten herriei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak gas-hornidurarik ez daukaten herriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako gal-

dera hau egin du, Industria, Merkataritza, Turismo, Lan eta Teknologia kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Gure taldeak gure erkidegoko herri eta industrialdeetara gasa eramateko planei buruz eginiko galderaren erantzuna aurtengo apirilaren 24an jaso zuen. Bertan esaten da populazioaren % 82ren eskura dagoela egun gasa, eta herri gutxi batzuk baizik ez direla gelditzen gasik gabe.

Lehenbizikoa. Zein dira energia hori egun ez duten Nafarroako "herri gutxi" horiek?

Bigarrena. Horietatik zein kasutan aseko da premia hori 2002-2004 biurtekoan?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Oztopo fisikoak kentzeko aurkezturiko proiektuei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Oztopo fisikoak kentzeko aurkezturiko proiektuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Lehendakaritza, Barne, Justizia eta Toki Administrazioeko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legearen helburua da minusbaliotasun organiko edo bestelakoa duten pertsonen gizartearen ondasun eta zerbi-

tzuak eskuratu eta erabiltzea errazteko xedepena ezartzea.

Lehendabizikoa. Azken hiru urteotan, zein herri eta zein proiektu mota aurkeztu dira oztopoak kentzeko dirulaguntzetarako urteko deialdian?

Bigarrena. Zein hartu dira aintzat eta zein zenbatekoarekin?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, tokiko osasun-kontsultategiak eraiki eta birmoldatzeko aurkezturiko eskaerei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak tokiko osasun-kontsultategiak eraiki eta birmoldatzeko aurkezturiko eskaerei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak apirilaren 24an emaniko

801/2002 Ebazpenaren bidez, herrietako osasun kontsultategiak aurten eraiki eta birmoldatzeko dirulaguntzen deialdia ebatzi zen, 601.011.99 euroko zenbatekoarekin.

Lehenbizikoa. Zein da azken hiru urteotan herrietako osasun kontsultategiak eraiki eta birmoldatzeko jaso diren eskabideen zerrenda? Horietatik zeini eman zaio erantzuna eta zeini ez?

Bigarrena. Gobernuaren ustez erantzun egokia ematen ari al zaie eta epe egokietan Nafarroan alor horretan dauden premiei?

Hirugarrena. Zure departamentuak pentsatu al du aukerarik dagoen arlo honetan inbertsioetarako urte askotako plan bat ezartzeko, toki entitateak inbertsioa lehenago planifikatu, baita gauzatu ahal izateko ere, dirulaguntza dagokion urtean jaso arren?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Martzilla-Peralta errepidea hobetzeko obretan bidegorri bat ere egiteari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Martzilla-Peralta errepidea hobetzeko obretan bidegorri bat ere egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna jaunak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du idatzizko erantzuna jasotzeko.

Berriki, Martzilla-Azkoien errepidea hobetu eta zabaltzeko proiektuaren lehiaketarako deialdia egin da. Gure taldeak uste du lan hori beharrezkoa dela, baina proposamen bat egin nahi genuke, trazaduran bizikletentzako errei bat aurreikustea, alegia. Alde horretan txirritulari asko ibiltzen da, inguruko herrietatik landa bideetara joaten direlako kirol hori praktikatzera. Gune batzuk natura babeseakoak direnez horrek ekar lezake, gainera, nolabaiteko turismo berdea. Gogoratu besterik ez dago Ablitasko errepidea hobetzean aintzat hartu zela gai hori, eta emaitzak oso onak izan direla. Horrexegatik, hauxe jakin nahi dugu:

– Zein da herrilan Departamentuaren iritzia Martzilla-Azkoien errepidea hobetzeko lanen trazadurari bizikletentzako errei bat gehitzeko aukerari buruz?

– Iritzia kontrakoa baldin bada, zergatik?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Galdera, liburutegien sistema, museoak eta ondarea arautzeko lege bat egiteari buruzkoa

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak liburutegien sistema, museoak eta ondarea arautzeko lege bat egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurren-

go galderak egin ditu, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Nafarroako Gobernuak lehendakari Sanz jaunak Liburutegiei buruzko Foru Legea legegintzaldi honetan onesteko konpromisoa hartu zuen 1999ko uztailaren 20an egindako inbestidura eztabaidan, baina bi urte eta erdi baino gehiago iragan badira ere, gobernuak ez du inolako ekimenik abiarazi horren kariatara. Areago, gure talde parlamentarioak gai hori dela-eta Nafarroako Gobernuari egindako jabelduraren iragan otsailaren 21ko osoko bilkuran, Laguna jaunak ezin izan zuen zehaztu noizko izanen zuten lege proiektua igortzeko moduan, eta iradoki ahal izan zuen bakarra izan zen "hemendik gutxira hitzarmen bat sinatuko dela NUPekin", Nafarroaren ondarea, museoak eta liburutegi sistema arautze-

ko legedia taxutzeko. Bada, prentsan agertutako hainbat berriren arabera, hori dena prest dago.

Hori dela-eta, gure talde parlamentarioak ondokoak jakin nahi ditu:

1. Sinatu al du Nafarroako Gobernuak hitzarmenik NUPekin Nafarroaren ondarea, museoak eta liburutegi sistema arautzeko legea taxutzeko? Sinatu baldin badu, horren kopia nahi dugu.

2. Zenbateko kostua izanen du diru aldetik itun horrek? Aurrekontuko zer kontusaili egotziko zaio?

3. Zer dela-eta ezin dute taxutu lege proiektu hori Nafarroako Gobernuko langileek berek?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 14an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Galdera, Barañain eta Landabengo poligonoaren artean oinezkoentzako zubi bat eraikitzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a ARANAZ ECHARRI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak Barañain eta Landabengo poligonoaren artean oinezkoentzako zubi bat eraikitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak, Biltzarreko Erregelamendua-ren 184. artikulua eta hurrengoak xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Herrilan Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Komunikabideetan berriki agertu dira zenbait informazio Barañainen eta Landabengo industrialdearen artean laster eraiki behar omen den oinezkoentzako pasabideari buruz. Pasabide horrekin erantzuna emanen litzazieke Volkswagen lantegiko langileen eskaerei.

Barañaingo Udalak ere aspalditik eskatu du zubi bat eraikitze alde horretan berean, herriari beste sarbide emateko Landabengo industrialderako eta ipar zein mendebaldeko saihebidetarako, eta horrela egun Barañaingo sarrera-irteeretan gertatzen diren trafiko pilaketak arintzeko.

Oinezkoentzako pasabidea eraikitzea bateragarria al da Barañaingo Udalak eskatzen duen oinezkoentzako eta ibilgailuentzako zubiarekin, ala horren ordezkoa?

Departamentu horrek aurreikusirik al du 2002 eta 2003ko ekitaldietan Barañaingo Udalak eskatzen duen Landabengo sarbide berria egitea?

Hala bada, zer dela-eta eraiki behar da oinezkoentzako pasabide hori?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Jose M^a Aranaz Echarri

Galdera, Barañain-Etxabakoizko osasun-eskualde oinarrizkorako osasun etxe berri bat eraikitzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a ARANAZ ECHARRI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarrri jaunak Barañain-Etxabakoizko osasun-eskualde oinarrizkorako osasun etxe berri bat eraikitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aranaz Echarrri jaunak, Biltzarreko Erregelamenduen 184. artikulua eta hurrengoak xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu,

Nafarroako Osasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Barañaingo Udalak orube bat laga dio departamentu horri Barañain-Etxabakoitz osasun eskualde oinarrizko sortu berrirako osasun etxea eraikitzeko.

Eginik al dago osasun etxe berriaren proiektua?

Jakinarazi al zaizkio eskualdeko osasun kontseiluari proiektu horren edukia eta bertan izanen diren osasun espezialitateak zein diren?

Zein dira osasun etxea garatzeko aurrekontuak aurreikuspenak, zenbatekoak eta zein ekitalditarakoak?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Jose M^a Aranaz Echarrri

Galdera, Barañainen 0-3 urte bitarteko haurrentzat ikastetxe bat garatzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a ARANAZ ECHARRI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarrri jaunak Barañainen 0-3 urte bitarteko haurrentzat ikastetxe bat garatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Ara-

naraz Echarrri jaunak, Biltzarreko Erregelamenduen 184. artikulua eta hurrengoak xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Aurreikusirik al du departamentu horrek Barañainen, 2002. urterako, 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzako ikastetxe bat ezartzea?

Zein dira aurrekontuan ikastetxe horretarako esleitu diren diru kopuruak? Zer kopuru jarriko luke departamentuak eta lanak zein ekitalditak gauzatuko lirateke?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an.

Foru parlamentaria: Jose M^a Aranaz Echarrri

Galdera, farmaziak hitzartzeko baldintzei buruzko esparru-akordioari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Farmaziak hitzartzeko baldintzei buruzko esparru-akordioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak farmaziak ituntzeko baldintzei buruzko esparru-akordioa onetsi duela behin jakinarazi ondoren eta Farmazia laguntzari buruzko Foru Legearen 29, 30 eta 31. artikulua kontuan harturik, hauxe jakin nahi nuke:

1. Zein diren Farmazia Laguntzaren Batzordeko kideak eta Negoziaziorako Azpibatzordekoak.

2. Zein izan zen Osasun Departamentuak Farmazia Laguntzaren Batzordera esparru akordioa-ko igorri zuen proposamena?

3. Zein izan ziren akordioak eta adostasunak?

4. Atzera bota zen proposamenen bat? Hala bada, zein eta zergatik?

5. Farmazia bulegoak ituntzeko baldintzak.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, 2002ko uztailaren 1etik 2003ko maiatzaren 31ra bitartean aurreikusiriko baso-behatokien kokalekuei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak 2002ko uztailaren 1etik 2003ko maiatzaren 31ra bitartean aurreikusiriko baso-behatokien kokalekuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi

Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Lehendakaritza, Barne, Justizia eta Toki Administrazioeko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Su-Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak iragarri du 2002aren uztailaren 1etik 2003ko maiatzaren 31ra bitarteko zerbitzuaren kontratazioa, eta jakitera eman du zein diren basoko begiratokiak.

Horietatik bat ere ez dago Baztan-Bidasoa eskualdean, baso-masa handia eduki eta sute larriak gertatu izan diren arren.

Lehendabizikoa. Aurtengo uztailaren 1etik 2003ko maiatzaren 31ra bitarteko epean sortzen diren premiei erantzuteko Nafarroan aurreikusi

diren basoko begiratokiak non egonen dira kokaturik?

Bigarrena. Zein izan dira bakoitza hautatzeko arrazoiak?

Hirugarrena. Zein da bakoitzaren eraginpeko eremua eta begiratze eremuaren gehieneko distantzia?

Laugarrena. Zein izan da arrazoia Baztan-

Bidasoa eskualdean horrelako behatokiak ez paratzeko?

Bosgarrena. Zein izan da eskualde horietako bakoitzean, Baztan-Bidasoa barne, azken urteotan gertaturiko suteen kopurua eta ondorioak?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an.

Foru parlamentaria: Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, postua esleiturik izan gabe Osasun Etxeetan diharduten medikuei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak postua esleiturik izan gabe Osasun Etxeetan diharduten medikuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Foru Komunitateko osasun zentroetan lanpostu atxikirik gabe zerbitzuan aritzen diren sendagileek administrazio kontratua dute, eta kontratu horrek ez du baliorik INSALUDEk eginiko deialdietan.

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko sendagileen egoera gure erkidegotik kanpoko beste sendagile batzuen baina okerragoa da.

Nafarroako osasun zerbitzuak profesionalen egonkortasunari eta haien lanaren onarpenari esker gorde du kalitatea. Bestalde, afera publiko ez arduratzen den edozein pertsonari egonkortasuna eta onarpena ematea lehentasunezkoa izan behar da. Hauxe jakin nahi dugu:

1. Hartu al du Gobernuak neurriren bat dagoen alde negatibo hori zuzentzeko? Hala bada, zein dira hartutako neurri zehatzak? Hala ez bada, zergatik ez dira hartu? Noiz pentsatu da hartzea neurriren bat?

2. Zenbat dira egoera horretan dauden profesionalak? Neurriak hartzekotan, zenbatengan izanen lukete eragina?

3. Aztertu al da osasuneko beste profesional batzuk ere sendagileen antzeko egoeran dauden? Azterlan horretan bide eman zaie sindikatuei parte hartzeko?

4. Aztertu al da foru administrazioaren beste sektore batzuetako kontratatudun langileen egoera Estatuko administrazioaren langileena baino okerragoa den?

5. Gobernuak, duela hiru hilabete, foru administrazioko lanpostuen "aldi baterakotasuna" desagerrarazteko onartu zuen neurria noraino ari da aplikatzen?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ea

Foru parlamentaria, José Andrés Burguete Torres

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat oposizio bitartez eta txanda irekian betetzekoa

Izendapen proposamena

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat betetzeko asmoz Mahaiak 2001eko urriaren 8ko erabakiaren bitartez deitutako oposizioa amaiturik (2001eko azaroaren 9ko 136. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2001eko urriaren 22ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta), epaimahaiak ondoko erabakiak jakinarazten ditu:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanpostu bat oposizio bitartez eta txanda irekian betetzeko deialdiko gaitutuen zerrenda onestea, puntuazioaren arabera:


1. Alegria Goñi, Carmen 50,5 puntu.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea Carmen Alegria Goñi andrearen aldeko izendapen proposamena liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista lanposturako, deialdiko 7.1 oinarrian xedatutakoarekin bat. Deialdia 2001eko urriaren 8an onetsi eta 2001eko urriaren 22ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eta guzti hau jakinarazten da interesatuak deialdiko 7.2 oinarrian eskaturiko dokumentazioa aurkez dezan.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 13an

Epaimahaiko idazkaria: Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak
Helbidea
Telefonoa *Hiria*
P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	